

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

16
positibo berri
2.379
positibo guztira*

1.621
hildako EAEn
UCIn, EAEn

NAFARROAN

2
positibo berri
5.494
positibo guztira
Sendatuak: EAE 18.393

'Abuztuko Udaleku Irekiak' egingo dira 6 urtetik 14 urte bitartekoentzat, aurten

Lau astetarako antolatu ditu udaleku irekiak Dobera Euskara Elkartek, eta nahi diren asteak aukeratzeko aukera dago. Izena emateko epea uztailearen 24an amaituko da.

HERNANI UDALEKUAK

Abuztuko hilabetean ondo pasa eta entretenitzeko aukera eskainiko du Doberak. Aurten, lehenengoz, udaleku irekiak antolatu ditu abuztuko 4 asteetarako. Nahi diren asteak aukeratzeko aukera dago, asteak «independienteak» direlako. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (2008-2013 artean jaiotakoak) eta DBH lehenengo eta bigarren mailako gazteentzat (2006-2007 artean jaiotakoak) prestatu dira udalekuak. Azken hauek, ordea, bigarren eta hirugarren asteak gordeko dira, bakarrik.

Astehenetik ostiralera, ekintza bereziekin

Udalekuen ordutegiari dagokionean, gazteak goizeko 09:00etan elkartuko dira taldeetan eta 13:30ak arte arituko dira. Gainera, astean behin «egun pasa» bat egingo da, arratsaldeko 18:00ak arte.

Lehenengo astetik hasita azkenekora arte plangintza «berezia» egin dute. Ohiko aisialdi ekintzez gain, asmoa da herriko elkarte ezberdinekin harremanetan jartzea antzerkia, euskal dantza edota bertsojaritza ezagutarazteko. Kirola egiteko aukera ere izango dute umeek, Kaxkardi Kirol Elkartearekin ekintzak egingo dituztelako asteko egunen batean.

«Herriko elkarteekin elkarlana egin nahi genuen, euskal



Abuztuan ere udalekuez gozatzeko aukera izango da.



Piraguismoa izango da ekintza berezietako bat.

kulturari eta herrian dauden elkarteek ere bultzada emanaz». Horregatik, Ttarla, Bertso Eskola, Amher, Antzerki taldea edota Kaxkardi Kirol Elkarte protagoinistak izango dira Doberak antolatu dituen udaleku irekietan.

Udaleku «berritzaileak eta ezberdinak izatea nahi dugu»

Udalekuen helburu nagusia da «opor garaian, euskarazko aisialdiak gozatzeko eta euskaren erabilera areagotu eta sendotzea». Euskara Elkarte den aldetik, euskal kultura eta horrekin batera, hizkuntza bultzatzea da udalekuekin lortu nahi den beste jomugetako bat.

Bestalde, haurren eta gazteen arteko sareak ere euskaldundu nahi dituzte, modu ez formalean. «Hori garrantzitsua da eta iruditzen zaigu udaleku hauek hori betetzen dutela», jakinarazi dute.

Izan ere, aurtengo larrialdi egoerak haurrak gelatik lehenago ateratzea behartu zituen eta askok «euskeraz harremantzeko aukera galdu dute». Horregatik, udaleku hauek egitea

aberasgarria izan daitekeela pentsatu dute antolatzaileek.

Aipatutakoez gain, abuztuko plangintza honen beste helburu nagusietako bat da, «euskal kulturara eta natur-ondarera gerturatzea eta hauek ezagutzatzea».

Lehenengo aldia da Doberak udaleku irekiak antolatzen dituela. Orain arte udaleku itxiak egin izan dituzte, baina aurten ezinezkoa izan da osasun larrialdi egoeratik. Bi txanda izaten ziren, uztailean eta abuztuan eta Euskal Herriko herrietatik barrena abenturaz jositako esperientzia izaten zen.

Izen ematea bihurtik uztailearen 24ra, webgunean

Lau astetan egongo da izena emateko aukera, «independientei eta tartekatuta ere, bakoitzaren nahia edota behararen arabera». Hala ere, DBHkoek bigarren eta hirugarren astea bakarrik izango dute aukeratzeko. Plazak mugatuak dira eta taldeak 15 laguneko osatuko dira gehienez, 13 haur eta 2 begirale-

rekin.

Izena emateko aukera online izango da: www.dobera.eus webgunean. Hala ere, edozein zalantzarako edota informazioa lortzeko honako hauetara jo daiteke: 943332799 telefono zenbakira edo email helbidera, dobera@dobera.eus.

Garrantzitsua da gogoratzea, Abuztuko Udaleku Irekietan koronabirusagatik ezarritako segurtasun neurriak beteko direla. «Protokolo bat dago zehaztuta», diote. Horretarako, begiraleekin formakuntza bat egingo da. Gurasoekin ere bilera prestatuko dute, plangintzaren inguruan informazioa emateko eta osasun zain izango den azaltzeko.

Lan poltsa, uztailearen 22ra arte

Begiraleak behar dira udalekue-tan. Interesdunek curriculum dobera@dobera.eus-era bidali dezakete. Eskatutako baldintzen artean daude adin nagusikoa izatea eta Aisialdiko Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazioa duten ikasketak izatea. **K**

Omenaldi xumea gaur, Barandiaran eta Rodriguezi

ASTIGARRAGA ZIPOTZA ELKARTEA

42 urte betetzen dira egunotan, Iruñeko istiluetan tiroz hil zutela German Rodriguez irundarra, eta Donostiako manifestazioan Joseba Barandiaran astigartarra. Eta «egia, justizia eta erreparazioa» eskatzeko bidean, omenaldi xume bat egingo diete gaur, 14:00etan, Zipotza elkartearen inguruan.

Zinea, gaur gauean

GOIZUETA ZINEA

Ilargipeko zineaz gozatzeko aukera izanen dute gaur, goizuetarako: *Elkano, lehen mundu bira* jarriko dute, 22:00etan, Ikastolako tabernan. Maskarilla jantzita joan behar da, eta esertzerakoan kendu daiteke.

Bigarren Eskuko Azoka berriro, bihar

HERNANI AZOKA

Pandemiaren hasieratik aurrenekoz, eta udaren normalean egiten ez den arren, Bigarren Eskuko Azoka jarriko dute bihar, 10:00etatik 13:30etara, Urbieta kalean. Maskarilla jantzita joan behar da bisitariak, eta postuak ikusteko txanda itxaron.

Sirenak, asteartean

HERNANI OKERRAK ZUZEN

Atzoko Kronikak zioen, igande honetan aktibatuko dituztela larrialdi kimikoen alerta sirenak. Baina eguna oker zegoen: igandean ez, datorren asteartean izango da hori, 12:00etan.

Enkartelada, gaur

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Enkartelada egingo dute gaur, 20:00etan Plazatik abiatuta, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek deituta.

BERTAKO "KMO BASERRIKO" Afari-Parrillada

Bertako entsalada, arkuamea, txuleta eta beste produktu berri batzuk. Iparragirre Sagardotegiko sagardoekin maridatu da.

IPARRAGIRRE
AFARI-PARRILLADA

Uztailak 11, larunbata, 21:00etan
Prezioa: 28€ (kafea eta BEZ barne)
Erreserba egiteko: 943 55 03 28
B°. Osinaga 10, HERNANI
943 550 328 www.iparragirre.com

ZURE 0 KM. SAGARDOTEGIA

IKATZA
Astigarraga

Kale Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzataberna20@gmail.com

Amaita
arrandegia

Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

JOXE MARI
EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Astehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzean, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

EGURALDIA
GAUR Fronte txiki bat sartuko da, eta lainoak ekarriko ditu. Ipar isurialdean pilatuko dira gehienak, eta baliteke xirimiria egitea ere. Barnealdean, berriz, giro argiagoa izango dugu. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta frexkatu egingo du. **Min.17° / Max.21°**

BIHAR Behe-lainoekin hasiko dugu eguna, eta xirimiria ere egin dezake aurreko orduetan. Baina gero, lainoak gubituko eta argiagoa izango da arratsaldean. Ipar-ekialdetik finkatuko da haizea, eta gora egingo du tenperaturak. **Min.16° / Max.23°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



Xabier Urdangarin eta Jaione Irazu, Guztion Astigarraga programako lokal huts baten aurrean.

Martxan da 'Guztion Astigarraga', «herriko merkataritza bultzatzeko»

Garatzen jarraitzen du 'Guztion Astigarraga' Astigarragako merkataritza berraktibatzeko programak, eta Udalak azaldu du martxan jarriko dela «erdigunean kokatzen diren lokal hutsen poltsa publikoa».

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Udalak, *Guztion Astigarraga* merkataritza berraktibatzeko, programa garatzen jarraitzen du. Proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten Xabier Urdangarin Astigarragako alkateak eta Jaione Irazu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo teknikiariak, pasa den asteazkenean egin zuten aurkezpenean. Bertan, alkateak jakinarazi zuen, asmoa dela «bertako merkataritza bultzatzea». Astigarraga «asko hazi da, etxe berri asko egin dira», baina kaxkoan, «lokal huts asko daude, eta gure kezka hori zen, honi nola eman irtenbidea». Urdangarin gaineratu zuen, asmoa dela jendeak lokal hutsetan negozioak martxan hartzea.

Garatzen ari diren programa hontaz gain gainera, 2020ko edizioan martxan jarriko da, «erdigunean kokatzen diren lokal hutsen poltsa publikoa».

Aipatutako poltsa publiko hau <https://guztion.astigarraga.eus/lokalkomertzialak/> atarian kokatuta dago eta Jaione Irazuk azaldu zuen, gune horren helburua izango dela «itxita dauden lokal horiek berraktibatzea lokal bat bilatzen dabilen ekin-tzaileari informazioa eskainiz». Harremanetan jarri da Astigarragako Udala lokal hutsen jabeekin, eta jada aipatutako webgunean daude ikusgai lokal hutsak, «bakoitzak fitxa bat dauka hainbat informazioekin,

eta nahi duguna da, jendeak ikustea lokal hauek eskuragai daudela, eta norbaitek negozioa jarri nahi izanez gero, hortxe duela aukera».

Binilo eta argazkiak, erakuslehoetan

Kale mailan eta lokal horien erakuslehoetan ikur bereizgarri bat topatu daiteke, «ikusgarriak dira gainera». Bertan agertzen den estekaren bidez momentuan bertan kontsultatu ahal izango dira «lokalaren argazkiak, planoak eta gainontzeko ezaugarriak».

Lokal hauen aktibitatea errazteko asmotan, Astigarragako Udalak, diru laguntzak emango ditu, «dagoeneko zabalik dago proiektu bat ezartzeko merkataritza ekintzailera diru laguntzak eskatzeko epea». Diru laguntza hauek, besteak beste, lokalaren gastuetan laguntzeko izango dela azaldu du Udalak, «azkenean lehendabiziko urratsak zailak izaten dira, hasiera-

«4.000 euro bitarteko dirulaguntzak dira eta eskaintzailearen egoeraren arabera, %30 eta %50 artean finantzatu da. Hala ere, guzti honen berri webgunean topatu ahal izango da»

ko obrak, egokitzapenak, mol-daketak...» eta urrats horietan laguntza ematea dute helburu dirulaguntza hauek. «4.000 euro bitarteko dirulaguntzak dira, eta eskatzailearen egoeraren arabera, %30 eta %50 artean finantzatu da».

Dirulaguntzak eskatzeko epea, azaroaren 30ean amaituko da. Momentuz, «12 lokal atxikitu dira programara». Guzti honen berri, aipatutako webgunean topatu ahal izango da.

Webgune honetan gainera, gida bat dago, proiektua ezartzeko egin beharreko tramitazioen inguruko informazioa topatuko du interesdunak. «Negozioa martxan jarri nahi duenak, kalkuluak eta azterketak egiteko balio du. Internetez egin daiteke, eta bertan zure negozioa nondik nora eramango duzun zehaztu dezakezu». Honez gain, Astigarragako Udalak, aholkularitza zerbitzua eskainiko du, «tartean zalantza asko sortzen direlako, eta hortan laguntzeko da aholkularitza».

Bitartean, kale mailako itsura hobetze aldera, eta lokal horien inguruko interesa pizteko bereizgarriez gain, aipatutako binilo apaingarriak jarri ditu Udalak, «binilo horiek Astigarragan zehar ateratako argazkiekin osatu dira eta horien bitartez komertzio txikiaren aldeko kanpaina landu nahi izan dugu».

Doako parte hartzea

Udalak gehitu du, lokala aktibatzekeko interesa duten jabeek webgunean dagoen galdetegi bat, edota udalera deituz egin ahal izango dutela eskaera, «eta programan parte hartzea erabat doakoa» dela ere azpimarratu dute Urdangarin eta Irazuk. **K**

300 deskontu bono eskuragarri gaur eta bihar, goizuetarrek

20 euroren truke, herritarrek jasoko dituzte 5 euroko bost bono, herriko komertzioetan erabiltzeko.

GOIZUETA UDALA

Goizuetako Udalak ere jarri du martxan deskontu bonoen sistema, herriko komertzioari laguntzeko. Herritarrek 5 euroko bost bono jasoko dituzte (25 euro guttira), 20 euro ordainduta. Guttira, 300 bono sorta banatuko dira, eta gaur eta bihar izanen da aukera, horiek eskuratzeko: udaletxeko orapean egonen dira, gaur 18:00etatik 20:00etara, eta bihar 10:00etatik 13:00etara.

Goizuetan erroldatuta daudenek bakarrik izanen dute bonoak eskuratzeko aukera, eta 16 urtetik gorakoek soilik. Herritar bakoitzak, bi bono sorta erosi ahal izango ditu gehienez. Hori

bai, norberaren sorta eta beste hiru lagunena ere erosi dezake bakoitzak, betiere guztien nortasun agiria erakutsita eta haien datuak emanda.

Bono horiek, datorren astelehenetik aurrera erabili ahal izanen dira, abuztuaren 30era arte, Goizuetako komertzioetan: Zubidenda, Coviran, harategia, farmazia, estanko eta arropa denda, Izkina, Mutu, Zubiondo, Oxeguarda, Iskibi, eta Irati eta Kiribil ileapaindegiak.

«Herriko kontsumitzeko ohiturari eustea», helburua

Kanpaina honetan, 1.500 euroko inbertsioa egin du Udalak, berak jarriko baititu bono sorta bakoitzaren 5 euroak. Eta horrekin, gainera, lortuko da bonoen 7.500 euroak gelditzea herrian bertan.

Helburua da, «herriko komertzioetan kontsumitzeko ohiturari eutsi, eta konfinamendu garaian ixtera behartuta egon diren komertzioei laguntzea». **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANTONIO GONZALEZ MARTIN

Besarkada bat familiari.

BERRIAK ELKARTEA

Hernanin, 2020ko uztailaren 10ean

Eskela
JOXAN ZAPIAIN ERRAZKIN
"Potrolo"

AUTOS ZAPIAINEKO LANGILEAK

Hernanin, 2020ko uztailaren 10ean

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko. Euskara jakitea ezinberstekoa. Deitu **688 69 40 34**

Emakume lan bila: edozein lan egiteko prest. Deitu: **609 209 161**

Udaran zerbitzari lanetarako norbait behar da Hernaniko taberna batean, esperientziarekin.

Bidalit CV-a: aeurumea@gmail.com / Deitu: **695 788 981**

Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. Deitu: **618 119 781**

Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzio kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidalit c.v.**

rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**